

HAUTESKUNDE SINDIKALEI BURUZKO INFORMAZIO-OHARRA, 2024ko AZAROAREN 28koa

Egun on,

Jarraian, datorren ostegunean, azaroaren 28an, kontuan hartu beharreko jarraibide orokor batzuk azalduko dizkizuegu.

Egun horretan hauteskunde sindikalak egingo dira Osakidetzan.

ARABAKO ESIan Arabako Enpresa Batzordeko eta Langileen Batzordeko ordezkariak aukeratuko dira.

ENPRESA BATZORDEA

Azaroaren 28an jardunean dauden lan-kontratuko langile **FINKOEK** soilik ematen diote botoa Enpresa Batzordeari. (Ordezko langileek eta prestakuntzan dauden langileek Langileen Batzordeari ematen diote botoa).

Bozketa-mahaia Santiago Ospitalean egongo da: Errehabilitazio Zerbitzuaren bilera-lokalean. Kokapen- eta sarbide-planoak erantsi dira.

Bozkatzeko ordutegia **07:00etatik 23:00etara** izango da.

LANGILEEN BATZORDEA

Langileen Batzordeari **estatutupeko langileek eman ahal izango diote botoa, bai eta txandakako langileek eta prestakuntzan dauden eta azaroaren 28an jardunean dauden langileek ere.**

8 bozketa-mahai osagarri eratu dira, honela banatuta: Kokapen- eta sarbide-planoak ere erantsi dira.

1-4. mahaiak Txagorritxu Ospitaleko Liburutegian kokatuko dira.

5. eta 6. mahaiak Florida aretoan eta Santiago Ospitaleko Liburutegian egongo dira.

Mahai horietan bozkatzeko ordutegia **07:00etatik 23:00etara** izango da.

7. mahaia Olagibelgo anbulatorioko 2. solairuko bilera-gelan egongo da.

8. mahaia Lakua-Arriagako Osasun Zentroaren alboko eraikineko 1. solairuan egongo da.

Azken bi mahai horietan, Lehen Mailako Arretako profesionalek emango dute botoa, Gazalbide eta Zabalganeko Osasun Zentroetako profesionalek izan ezik, haiek Txagorritxu Ospitalean bozkatuko baitute.

Mahai horietan bozkatzeko ordutegia **08:00etatik 20:00etara** izango da.

HAUTESLE-ERROLDAK

Dagozkien mahaietako hautesle-errolak SAPen jasotako informazioaren arabera egin dira, eta, oro har, langileak beren lantokiko mahaietako errolden barruan egongo dira. Hala ere, gerta daiteke kasu batzuetan bat ez etortzea.

ESlaren intranetean ESiko hautesleen errolda osoa dago ikusgai, eta erroldatuta dauden mahaia adierazten da, beharrezkoak ez diren joan-etorriak saihesteko.

Gogoratu errolda osatzen duten pertsonak botoa eman ahal izango dutela azaroaren 28an jardunean jarraitzen badute. Era berean, botoa emateko eskubidea baliatu ahal izango dute, une honetan erroldan egon ez arren, bozketa-egunean jardunean daudela egiaztatzen duten profesionalek.

Gainera, mahai bakoitzeko hautesleen errolda bozkatzeko gunetako sarreran egongo da ikusgai.

Hautesleen nortasuna egiaztatzeko, mahaian **NANa**, **pasaportea** edo **gidabaimena** aurkeztu beharko da.

Bozketa-mahaia botoa eman izanaren **egiaztagiria** emango die botoa eskatzen duten hautesleei, edo, hala badagokio, bozkatzeko ezintasuna egiaztatzen duena.

BOTOA EMATERA JOATEKO BAIMENAK, 28an lan-txanda dutenentzat

- Bozketa-mahaia dagoen lantokiko langileek botoa ematera joateko behar duten denbora izango dute*.
- Botoa emateko lantokitik joan behar duten herri bereko langileek behar duten denbora izango dute, eta gehienez ere bi orduko baimena izango da*.
- Botoa emateko herritik joan behar duten langileek behar duten denbora izango dute, eta gehienez ere lau orduko baimena izango da*.

*Zerbitzu/zentroetako arduradunen erantzukizuna izango da zerbitzu/zentro horiek antolatzea.

POSTA BIDEZKO BOTOA

Posta bidezko botoa aukeratu duen pertsonak botoa berak ematea erabakitzen badu, hala adierazi beharko du bozketa-mahaian. Mahai horrek, botoa eman ondoren, postaz bidali duena emango dio, jaso badu, eta, bestela, jasotzen denean, suntsitu egingo da.

Posta bidezko botoa bozketa amaitu ondoren jasotzen bada, botoa ez da zenbatuko eta ez da boto-emailatzat hartuko. Halaber, ireki gabeko gutun-azala suntsitu egingo da, eta horren berri emango da.

HAUTESKUNDEEN EMAITZA

Bozketaren emaitza iragarki-tauletan argitaratuko da bozketaren hurrengo egunean.